



uztarria

|| Azpeitiko herri aldizkaria || 2009ko azaroa || 111. zenbakia ||  ||



NORTASUN PROPIOA

Lagun giroan ondo pasatuz eguneroko errutinarekin hausteko bidea da emakumeen antzerki tailerra 20



skunkfunk

omerillo limon

FREEMAN T. PORTER

www.zerpetik.com

ZEN SPIRIT



eurotex
P I N T U R A K



BURDINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BRIKOLAJEA




SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 8125 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es



uztarria

Argitaratzailea. Uztarría Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarría@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 111.a (2009ko azaroa)
Urtea. XI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 / oalegria@uztarría.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Agirrezabala
Webgunea. www.uztarría.com

Uztarría herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Uztarríaik Bai Euskarari **Oharra.** Uztarría Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2009KO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia
Inkesta. Erraustu ala lur eman. Pentsatu al duzu horretaz? **13**

mamia
Alex Etxeberria. Azpeitiko legebiltzarkideari elkarrizketa **04**
Klik! Hiru azpeitiar Donejakue bidean, bizikletaz **16**
Gidabaimena euskaraz. Azpeitira ere iritsi da aukera **24**

jakiteko
Valentina Agirre. Hari eskainitako biografia argitaratu du Uztarría Komunikazio Taldeak **34**

Ba al dakizu Azpeitian ere ari direla egunkariaren epaiketaren kontrako ekimenak antolatatu nahian? Uztarría

egin zaitez bazkide Uztarrían **943 15 03 58**

Herri aldizkariaz gain, Uztarríaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarría Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide **30** euro dira urtean. **gara** dagoeneko Uztarrían; **106.400** euroko aurrekontua du Uztarría 2009. urterako. **eskerrik asko denei.**

30 euro dira urtean. **106.400** euroko aurrekontua du Uztarría 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria (Uztarría hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

ALEX ETXEBERRIA

EAJren legebiltzarkidea

“oposizioak albiste gutxi ematen ditu”

Hautetsi bezala lehen esperientzia du, “aberasgarria”. Bere alderdia, EAJ, lehen aldiz gobernutik kanpo gelditu da Gasteizko Legebiltzarrean. ✍️📧 Mailo Oiarzabal

Azpeititik Gasteizera eta Gasteiztik Azpeitira dabil egunero Alex Etxeberria joan den udaberritik, martxoaren 1eko hauteskundeetan, EAJren Gipuzkoako zerrendetan, Euskal Autonomia Erkidegoko legebiltzarkide aukeratua izan zenetik. Gurutz Ansola eta Esther Larrañaga herrikideen lekukoa hartu du, horrenbestez, Gasteizen.

Legebiltzarkide. Hitza bezain potoloa al da karguak berarekin dakarren ardura? Batik bat, zure ekimenaren arduraren jabe egiten bazara. Lana egin daiteke ardurarekin edo ardurarik gabe, toki denetan; arduratsu egiten baduzu, eta konturatu ez gero, ez esan nahi duen hitz horrek, bai, ardura dakar.

75 legebiltzarkide zaudete Gasteizko ganberan, baina gutxi batzuk dute oihartzuna, hedabideetan eta. Gainerakoek lana ez al da pixkat itzalean gelditzen?

Guk, astero, 30 ekimenetik gora aurkezten ditugu Legebiltzarreko Mahaian, talde bezala. Orduan, pentsa, horrek atzetik dakarrena: herritarren eskaera bat, egunkarian ikusi duzun berri bat, ez dakit nongo parlamentutan aurkeztu den zerbait... Aktualitatearen jarraipen bat eskatzen du. Hainbeste lege daude hor tartean, eta denei egin behar diezu jarraipena, denei zure ekarpena. Lana da. Gero, egunkarietan azaltzen dena izango da aurreko larunbaterako manifestazioa [sindikatuak

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1967ko maiatzaren 18an.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Informatikaria da, baina gaur egun politika du lanbide, Gasteizko Legebiltzarrean.

deituta Donostian egin zenaz ari da], Garzonek nola atxilotu dituen ezker abertzaleko ordezkariak eta aurrekontuak nola onartuko diren. Gainera, egunkarietara ez dute legebiltzarkideen lana horrenbeste jarraitzen; Gobernua- ren lana jarraitzen dute. Egunkarietara albisteak ematen dizkiena Gobernua da. Oposizioak oso albiste gutxi ematen ditu, kontrol lana egiten du eta; orduan, ez da azaltzen.

Izan ere, EAJ-ren ordezkari zara zu, eta oposizioan

zaude. Hori bai dela nobedadea!

Bai, beti gobernuan egon gara. Alde batetik, ikasi ere egin behar. Baina ikasi, legebiltzar horretan oposizioa egiten, Madrilen beti egon izan garelako oposizioan, eta Arabako Aldundian ere berdin. Orduan, badago jendea oposizioa egiten dakiena. Eta, esaten nuen, azkenean kerizpe bat egin digute hedabide guztiek, hori an- tzematen dugu. Azkenean nik uste dut, berez, hedabide guztiei jatekoa Gobernuak ematen diela. Eta gero, gauzak gertatu diren bezala gertatuta, oraindik eta babes gehiago ematen ari dira Gobernuari, bai Madrildik, bai hemen Vocento taldeak... Ogi- mamitan daukate. Horrek itzal



handia egiten digu. Oposizioa ez da erraza. Mahaiaren aldetik ere, ez dira gauzak erraz jartzen. Baina, aizu, lau urte izango direla pentsatu, eta aurrera.

Eta, lau urte bakarrik izango al dira?

Oposizioan? Dudarik ez. Guk hurrengoetan berriz ere lehendakaritza hartu behar dugu, horretan dudarik ez. Geuk ez badaukagu hori garbi, ez dauka zentzurik. Azkenean, EAJren proiektua Euskadi gobernatzekoa da. Oposizioa ez dugu gure leku bezala ikusten.

Oraingo Legebiltzarrak egoki isladatzen al du EAeko gizartea?

Ez. Horrelaxe: erantzuna 'ez' da. Erkidegoko bozkak hartzen baditugu eta ikusi, Gobernuak dituen aukien atzetik zenbat bozka dituen eta oposizioak zenbat dituen, askoz bozka gehiago ditu oposizioak, Gobernuak eta Gobernua sostengatzen duten konstituzionalista taldeek baino. Eta ezker abertzalea kontuan hartu gabe, gainera. Ezker abertzalea kontuan hartuko bagenu, oraindik eta gutxiago.

Zer batzordetan egiten duzulan?

Giza Eskubideetakoan, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismokoan eta Ekonomia eta Ogasun batzordeetan nago. Saiatzen ari gara lan guztietan eta ekimen guztietan, behintzat legebiltzarkide batzuek –gure taldekoak, Aralarrekoak eta EAKoak–, lan horiek euskaraz egiten. Eta ez da ezer planifikatutakoa

izan, berez atera zaiguna baizik. Nik uste dut badagoela ja nahiko oinarri, nahikoa ohitura eta nahikoa hiztegi, gure lanak euskaraz egiteko. Eta, oso era natural batean, hala ari gara egiten, eta nik uste esatekoa dela.

Zer moduzkoa ari da izaten esperientzia?

Dudarik ez dago esperientzia berri denak aberasgarriak direla. Eta ikasteko jarrera azaltzen baduzu, eta ekimenak aurkeztekoa, oso interesgarria da. Pertsonalki, aberasgarria.

Espero zenuena bezalako al da? Zerk eman dizu atentzioa?

Kanpotik, askotan pertsonaia da ikusten duzuna, pertsonak komunikabideen bidez eta transmititzen dizun irudi hori. Han zaudela, pertsona bera ezagutzeko aukera duzu eta horrek beste ikuspegi bat ematen dizu, aberatsagoa, azkenean. Eta, geure talde barruan, giro oso ona daukagu. Kommentatu izan dugu, litekeena dela oposizioan egoteak gehiago elkartzea. Posible da.

Gasteiztik, eta bizitza politikoaz ari garela, nola ikusten da Azpeitia?

Nik ez dut Azpeitia Gasteiztik ikusten, Azpeitia Azpeititik ikusten dut. Penagarria da. Sentsazioa da, zenbait unetan adostasunak ez bilatzeagatik denbora garrantzitsu bat galtzen ari dela. Ni jakitun naiz, adostasunetara iristeko esfortzu handiak egiten ari direla; eta hori bultzatuko dugu eta hori ari gara bultzatzen, gu, EAJtik. Uste dut oraingo udal gobernuak egunero erakusten duela hori. Bere planteamenduak garbi adierazten eta defendatzen ditu. Eta hori da erarik onena adostasunak bilatzeko. Espero dut hurrengo egunetan, asteetan edo hilabeteetan, adostasun horietara iristea. Bestela, blokeo egoera batean egongo gara eta, azkenean, denbora pasatu egingo da, eta ez dugu berreskuraturiko. Eta besteak badijoaz, ez dira gure zai egongo.*

“kerizpe bat egin digute komunikabide guztiek”

“hurrengoetan Lehendakaritza hartu behar dugu, dudarik ez”

Denontzako kultura?

Hau da 1960. hamarkadatik aurrera gizartean biraka ibili den galdera bat. Erantzuna beti bezala zuei, irakurleei, igortzen dizuet, baina galderaren garrantzia edo nondik norakoak ulertzeko beharrezkoa deritzot ideia batzuk argitzea.

Lehenbizi beharrezkoa da zehaztea ea zer ulertzen dugun kultura kontzeptuaz. Kultura, oro har, gizarte edo giza talde baten ezaugarri diren berezitasun espiritual, material, intelektual eta afektiboak dira. Beraz, ez du soilik barne hartzen artea, baizik eta, ikuspegi orokorrago batean, eskubideak, balio sistemak, ohiturak eta sinismenak agertzen dira. Gizakiok, izaki konplexu bezala, gizartean edo taldean bizi gara, horrek berekin dakartzan konplexutasun guztiekin.

Horregatik, nahiz eta Historiaurrean jada kultur adierazpenak agertu, ez da Grezia eta Erromatar zibilizazioak garatu arte, kultura sistema konplexu bat agertzen dela. Eta has-tapen horietan goi kulturaren eta kultura herrikoia arteko dikotomia bat hasten da ezartzen, neurri eta gradu desberdinetan, gaur arte mantendu dena. Aipaturiko bi kasuetan kultura horren hartzailea desberdina da, baina ekoizleak beti gizarteko goi postuetan egon direnak izan dira.

Aurrekoak kulturaren ekoizpenean herritarrek izandako parte-hartze eskasa aditzera ematen digu, nahiz eta kultura herrikoia funtsa beraien eguneroko bizitzan egon. Askotan gainera, kultura herrikoia gutxietsia izan da, oinarri sendorik ez zuelakoan.

Baina logikoki gizartea aldatzen den heinean, bere kultura ere aldatzen da eta hau nagusiki II. Mundu Gerraren bukaeratik gaur egun arte igaro diren ia 65 urte hauetan gauzatu da. Horrela, Europa ia osoan erdi klase sendo bat ezartzeak masen edo gehiengoaren kultura sortzea eragin zuen, kultura kontsumoaren fenomeno bat abian jarri.

Horrela, lehen gutxiengo bati zuzenduriko kultur adierazpenek (antzerkia, opera, poe-



markel mendizabal


Antzerki Topaketek duten onarpenak herrian pizgarria izan behar du kultura herritar bat garatzeko

sia...) ikusle eta kontsumitzaile berriak dituzte gaur egun; eta gainera, pauso kualitatibo bat emanez, kultur ekoizleen espektrua ere zabaldu da, gero eta gehiago direlarik kultura sortzen eta sendotzen duten herritarrek.


Azpeitiko Antzerki Topaketak

Hil honetan, urtero bezalaxe, Antzerki Topaketak izango ditugu herrian, zorionekoa delarik ekintza honek izan duen arrakasta. Herri-tarren parte-hartzea konstante bat izan da eta hau, aurrerago esandakoari erreparatu gero, ez da kasualitate bat. Antzerki Topaketek herrian duten onarpenak pizgarria izan behar du kultura herritar bat garatzeko, kultur adierazpen berriak abian jarri, eta herrian kultur sortzaileen kantera bat sortzeko.

Azpeitiko hiribilduaren 700. urtemugak ere aukera emango digu zurrenik herriko kulturak azken mendeotan izan duen garapenari buruzko hausnarketa bat egiteko, eta etorkizunerako sustarri sendoak ezartzeko, Azpeitia bezalako herri batek merezi duen kultur adierazpenak ez dietezen aurrerantzean urteko hilabete bateko ekintza batera mugatu.*




Xanti.R



**AZPEITIKO ERAKUSLEIHO
HANDIENA** JARRI PUBLIZITATEA UZTARRIAN

uztarría

hvt AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA



Zentzumenen zentzua

Duela egun batzuk erabaki nuen zein izango zen artikulu honetarako gaia: zentzumena. Zarautzen hitzaldi batean gorrentzako zeinu bidezko momentuko itzultzaile bat egongo zela irakurri nuenean hasi nintzen buruari bueltaka. Inoiz ez zitzaidan okurritu entzun ezin dezakeen batek hitzaldi batera joan nahiko zuenik. Inuxentea naiz. Horrela, geure herrian zentzumena dituztenek eta ez dituztenek gozatu eta gorrotatu ditzaizketen gauzak zerrendatzen hasi nintzen.

Alfabetikoki ordenatuta, dastamenarekin hasiko gara. Zeinen goxoak datozen aurten ere onddoak! Garagardo Azokako arrakasta oraindik gogoan dugula, eskerrak azkenean Ardo Eguna antolatuko duten behintzat, bestela onddoei eztarritik behera bultza ezinda geldituko ginen eta.

Entzun, dudarik gabe, Azpeitian gauza asko entzun daitezke. Kanpaiak, adibidez, egun osoan eta gau osoan zehar. Gauerdian esnatuz gero, gainera, ohartuko zara ordu laurdenero jotzen dutela, hartara ardiak zenbatau beharrean kanpaiak zenbatzen igarotzen dituzu jaikitze ordura arte gelditzen zaizkizun minutu edo ordu amaigabeak. Beste bat, azkenaldian nork ez du entzun Vllaconejoseko meloiak eta melokotoiak dakartzala iragartzen duen megafono errepikakorra? Edo nork ez zituen entzun Urrakiko azken igoeran gora eta behera zebiltzan tuboskape hotsak? Argi dagoena da, aurten behintzat, Triku Festako doinuak alboko herriera joan zaizkigula. Portzierto, urteak dira txorroskilleroa entzuten ez dudala, eta euria majo egin du.

Herriko jaiak eta zezenak gustuko dituenak, Zezen Beltz elkarteak atera berri duen DVDa ikusiz gozatuko du. Zinema gustuko dutenek, berriz, itxaron beharko dute Soreasuko zinema aretoan film eder bat ikusteko. Egia esan, ni neu, pixkaterako gustura geldituko nintzateke Soreasuko zinema aretoa bera ikusita bakarrik. Baina, tira, ez naiz politi-



olatz prat

Inoiz ez zitzaidan okurritu entzun ezin dezakeen batek hitzaldi batera joan nahiko zuenik. Inuxentea naiz

ka gaietan sartuko, ez dut gustuko irekita dauden zaurietan hatzak sartzea.

Ez dut gogoratzen azkenekoz Azpeitian noiz egon den, adibidez, eskulturen erakusketa bat, noiz izan dudan herrian artelan horietako bat ukitzeko tentaziorik. Aurten, zoritxarrez, Errege Kopa ukitu ezinda gelditu dira Lagun Onakeko mutilak. Zenbaitek –askok– ez dute lantegiko makina pixkatean ukituko, ezta zozketan egokitutako Loiolabideko etxeko ateko giltza ere. Baina, hemen kontsolatzen ez dena, ez duelako nahi da eta ni kontsolatzen nau beste hilabetez Uztarriaren zenbaki berri bat eskuartean dudalako, ukitu dezakedalako. Gauzak dauden moduan, ez da eta meritu makala.

Nahita ere ezin

Udazkeneko lurrinak usaindu nahi nituzke, zoru lehorraren gainean euria egiten dueneko hezetasuna, orbelarena, hego haizearena, baserri-tximinetako kearena... Baina, ezin dut, ezta nahita ere, ez behintzat Pienosos Bastidako eta Lapatzeko kiratsek –usaina deitzerik ez dago– burmuina iltzatzen jarraitzen didaten bitartean.*



Xanti.R

ARROSPIDE

OINETAKOAK

foru ibilbidea, 2 • tel./faxes: 943 811914 • 20730 azpeitia (gipuzkoa)
kale nagusia, 35 • tel.: 943 025840 • faxes: 943 02 58 35 • 20720 azkoitia (gipuzkoa)
e-posta: arrospeideoinetakoak@euskalnet.net



Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



Loiolako Inazio Hiribidea, 21
Tel. eta faxes: 943 81 69 76

menfis-azpeitia@hotmail.com



gortinak - estoreak
pertsianak - ohazalak
edredoiak - nordikoak

NEURKETAK ETA AURREKONTUAK
DOAN EGITEN DITUGU

ANA MARI TABERNA

- > Asteburuko menua 25 euro (edariak, kafea... barne)
- > Urritik aurrera, enkarguz, babarrun janak
- > Kuadrilentzat menu bereziak

Kale Handi, 1 **URRESTILLA** Tel. 943 15 75 91



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Erakusleihoak euskaraz.

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean urratsa eman du saltzaile honek. Gustua ematen du erakusleihoak euskarazko karteekin apainduta ikusteak. **Uztarrria**

**BEHERA.** Berrikuntzarik ez euskararen esparruan.

Renove Plana abian jarri du dendari honek, baina, euskararen esparruan egin beharreko berrikuntzak albo batera baztertu ditu. **Uztarrria***



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Xabi Borda.

ESANA DAGO

III “Euskal idazleok merkatu txikia dugu eta norbere gustuko lanak egin behar dira”

XABI BORDA
idazlea

III “Negua luzea da, eta badago denbora zerbaitetan saiatzeko. Ikusiko dugu”

AIMAR IRIGOIEN
harri-jasotzailea

III “Landetako industrialdean zerbait antolatzeke asmotan gabiltza, ikusiko dugu zer irteten duen”

JOSE ANTONIO
ARANETA
Lagun Artea Eskuderiako presidentea

Kirola: ozio ala bizio?

Urriak 14, asteazkena, idazten hasi aurretik egunkaria irakurri eta berri zahar beltzak gurean: hitz egiten ez hastearren eraman dituzte oraingoan, doakie hemendik bersarkada bana. Hau ere 'bizio' kontua ote?

Kirol praktikaren zaletasuna asko zabaldu den gizarte honetan –Loiolako etorbidea horren lekuko–, zaletasun honen inguruko eztabaida ugari mahaietan; helmuga edo helburua jartzea komeni al da, denbora kontuan hartzea komeni al da, astean zenbat: bi edo hiru aldiz, zenbat kilometro, zein erritmotan... Zaletasuna sortzen duen oro bezala, nire iri-

tizian dena neurrian; bakoitzak berea, noski, baina inoiz ere ez mugara iritsi gabe edo mugatik pasatuta, bata eta hirua artean beti baitago bia.

Eta neurrian aipatzen dudanean ez naiz neurtu daitezkezen bariabile desberdinetaz ari –denbora, erritmoa, adina, kilometroak...–, zaletasuna eta beharraren arteko neurriengatik baizik. Ondo dago gure asialdi denboran –ozioa– kirola praktikatzea ikuspuntu desberdinetatik, osasun ikuspuntutik eta ikuspuntu sozialetik adibidez; baina, geroz eta gehiago dira zaletasun hau egune-

roko behar bihurtu dutenak. Hauek beraien eguneroko kirol dosirik gabe gaizki sentitzen dira, zerbait falta balute bezala, normalean beraien ingurukoak pairatzen dutelarik hau. Beste hitz batzuetan esanda, kirola ez egiteak, behar adina ez egiteak –egun, denbora, kilometroak) *stress*-a sortzen die. Hau da, nire iritzi apalean, muga; egoera honetara iristea, bizioa.

Kirola praktikatzeak *stress*-a bideratzeko balio behar du eta ez inoiz alderantziz: *cuero sano-mente sana* eta *mente sana-cuero sano*, biak elkarrekin beti.✶



aitor zulaika

IKUSTEKOA!



▲ BADIOLEGIREN AZKEN HATSA.

Aldizkari hau zuen eskuetara heltzen denerako Badiolegi baserriak eraitsita egon beharko luke, hil honen 2an baitziren botatzekoak. Corrugados Alfonso Gallardo enpresak Anardi industrialdean altzairutegia eraiki behar duelako bota dute. Baserria bota aurreko astean ateratako argazkia da goikoa. Sekulako pendizak atera dizkiote. 📧📞 **Ainitze Agirrezabala**✶

URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



50 ikasle inguru herri eskoletan

URRIAK 12. 'Espainolen' egun handia da. Desfile, ahuntz eta parafernalia guztiekin azaltzen duten harrotasunak, identitatearekin zerikusia ei du. Beraiena 'konkista' bidea da: amerikar indioekin edota euskaldunokin markatu dutena. Guri arrotza egiten zaigun harrotasuna da. Euskal ikasleek Herrien Nazioarteko egoeraren inguruko jardunaldiak antolatuz jarri diote marra gorria jai egun arrotz honi.



izaskun egiguren



I Kros mistoa Azpeitian

MISTOA. Ikasberri Kirol Elkartek antolatu du. Hainbat herritan ohitura handiko proba da. Bikote mailan, taldeka, gaitasuna neurtzeko ekimen desberdina. Korrika egiteko zaletasuna eta gozamina, korrika elkarrekin eginez bilatzea. Sari ekonomikorik gabe, Euskal Selektzioaren alde.



Laxo arrosak minbiziaren kontra

MINBIZIA. Urriak 19, bularreko minbiziaren kontrako eguna. Azpeitian ere laxo arrosak banatu dituzte. Gaixotasunaren inguruan kontzientziatzea bilatzen da. Edonori ukitzen digun gaixotasuna dugu minbizia. Maila pertsonalean egin dezakeguna prebentzioari lotzen zaio: azterke-

ta medikuak, elikadura zaindu, ahalik eta bitza osasuntsuena egin... Baina, maila kolektiboan ere badago zer egina: medikuntza jarduerak hobetzea eskatu –diagnostikoa, jarraipena– edo kutxadura moduko kanpo faktoreen eragina neurtzeko azterketa errealak exijitu.*

INKESTA

erraustu aLa Lur eman. Pentsatu aL duzu horretaz?

 Ainitze Agirrezabala

BONI ALEGRIA

62 urte



"Erraustuta konplikazio gutxiago izaten da. Eskela batean irakurritakoa gordeta daukat: 'Osasuntsu zeundenean/denak zenezukan deika/gaixotu ostean ordea/gehienak ziren iheska'. Panteoiak ez ditut onartzen, boterea islatzen dute".

BEGOÑA ERRASTI

70 urte



"Urteak dira erraustea erabaki nuela. Lurperatzea baino garbiagoa dela iruditzen zait. Etxean jaso daiteke errautsen kutxa edo nonbaiten zabaldu. Horixe da nire borondatea".

JUSTO AIZPITARTE

66 urte



"Nik karta bat idatzita daukat, nire borondatea erraustea dela esanez. Nik ez dut nahi kanposantuan lur ematerik, elkarri lorak harrapatzen-eta dena ibiltzen omen dira".

MARIA JESUS ACEITON

50 urte



"Ez naiz erraustearen aldekoa. Beldurra ematen dit. Hiltzen naizenean panteoian edo hilobian sartzea nahi dut, hartara nire familiakoak bisitan joango zaizkit hilerrira".*

Ardoa ala garagardoa?

Aurtengo udazkenean berrikuntza bat ezagutu ahal izan dugu azpeitiarrok: Garagardo Azoka, hain zuzen. Gau batean bertan afaldu nuen eta gustura edan nituen hainbat pitxarkada zerbeza. Guztiok, poltsikoan hutsunea nabarmendu arren, udaberriko txoriak bezain alai atera ginen Berdura plazatik.

Asteburu polita izan zen hura, baina hala ere, ezin iazko Ardo Egunarekin ahaztu. Uste dut orduan ne nintzela ardo dastatzen ibili zen gazteena, baina kontuak kontu, egun borobila izan zen. Aurtengo edizioaren zain nengoela, Udalak berau antolatzeko asmorik ez zuela jakin nuen. Zerbeza festa bat izango zela ere esan zidaten. Zergatik kendu bata eta bestea jarri? Garagardoaren asteburu hau antolatzeke Udalekoek ez dute lan handiegirik hartu, saskibaloit taldekoen ekimena izan baita. Ardoaren egun alaia, ordea, Udalak antolatu izan du orain arte. Lana gainerik kentzeko ardoa garagardoarekin ordezkatzeko saiatu direnaren itxura eman dute.



xabier otamendi

Goiko galderari erantzunez, ni ardoaren eta garagardoaren aldekoa naizela esan beharrean nago, ez baitaukat aukeratzen hasteko asmorik. Orain entzun ahal izan dudaren arabera, oposizioaren ekimenez eta udal gobernuaren nahiaren aurka, Ardo Eguna antolatuko da azkenean, eskerrak!

Erdi Aroko Azoka justu-justu antolatu dela zabaldu da herrian. Merkatarien presioagatik antolatu omen du Udalak. Triku Festari, berriz, Azkoitiko Mataderira alde egiten utzi dio, hitzarturiko tokia, San Agustingo antzoki berria, prest ez zegoela argudiatuz. Hala ere, herrian Gaztetxea bezalako lokal bat izanda, antolatzaileek bertakoei ezer ez komentatzea salagarria deritzot. Guzti honekin ikus dezakegu Udalak herriko festen alde lan egiteko daukan grina. Hainbat eragile saiatzen dira herriari bizi pixka bat ematen, baina udaletxetik oztupoak eta ezer antolatzeke borondate eza baldin badatoz, jai tristeak izango ditugu azpeitiarrok.*

galdetzen hasita, 2010erako udal aurrekontua datorren udaberria baino Lehen onartuko aL dute?  Uztarria

Azkoitira zinemara

Kaixo lagun.

Udazkenarekin batera etorri zaizkigun zinema estreinaldiak ikusteko gogoa piztu zaidala jakinarazi nahi dizut. Donostiako Zinemaldiak ere nobedade piloak ekarri digu eta irrikaz nago tartetxo bat hartu eta zinemara joateko. Badakizu, ordea, nire herrian ez dudala hori egiteko modurik, eta Donostiara joan beharko dugu. Bokadiloa jan eta pelikula eder bat ikustera. Ez da, ez, plan txarra.

Ikastolan ere izan naiz, semearen andereñoarekin egin dugun lehen bileran. Ikasleek ondorengo hila-beteetan izango dituzten ibilaldien berri eman digute. Azkoitira joango omen dira laster, Baztartxon pelikularen bat ikustera. Beraien heziketarako ona omen da pantaila handiak ematen dituen aukeren berri izatea.

Badakizu, azpeitiarrontzat ez da erraza atseden-tarte horretaz disfrutatzea. Herriitik atera gabe, zinemak eskaintzen dituen une eder horiez gozatzea.




mirari garaia

Aspaldian ez duzu ikusi, baina semea asko hazi da. Ekin dio gainera tarteka koadrilan kalera ateratzeari. Ez nuke jai arratsaldeetan kale bazter batean eserita ikusi nahi. Atsegina zen gaztetxoak ginela goxoki batzuk erosi eta igandero zinemara joatea, ezta?

Ez dizut inoiz ezkatutu Soreasu proiektuaren aldekoa naizela. Argi daukat gure herriak zinema aretoa, kulturgunea eta bilera-eremuak behar dituela. Herriak dituen beharren artean lehendabizikoa aukeratzeko eskatuko bazenidake, Soreasukoa ez litzateke urruti ibiliko. Badakit hamar pertsonari galdera hori eginez gero hamar erantzun ezberdin aterako liratekeela. Badakit bai eraikuntza handia eta garestia dela. Baina herrian kulturari lotutako ekin-tzak bultzatzeko ezinbestekoa izango da, eta niri dagokidanez ez dut zalantzarik, Soreasu behar dugu, dudarik gabe.





Agur, eta ikusi arte.*



OTSOBELTZ



Andoni Salegi



Zezenzaleak

Aitortu behar dut inbidiatan nagoela. Hori bai, inbidia sana delakoan nago, behintzat. Urrian Zezen Beltz taldeak antolatutako ekintzetatik bat bera ere ez dut ikusi.

Ez zitzaidan gustatu taldea sortu berritan sokamuturra desagertu egingo zela eta arautzearen aurka egin zuten kanpaina. Gizarte honetan, eta guztiok horren errudun, dena arautu beharrean dago. Iazko San Sebastian egunean gizonezko bat zegoen plazako goiko arkupetan, soka lotzen duten lekuaren parean, bi urte izango ez zituen umetxoa lepoan hartuta! Hura handik ateratzera derri-

gortzeko araudirik ez badago, nik ez dut sokamuturrik nahi. Zorionez, kasu horiek salbuespen izaten dira, baina salbuespen horietarako behar dugu araudia.

Adi-adi izan nintzen saninazioetan antolatu zituzten txikientzako entzierroei eta ondorengo jolasei begira. Izugarri gustatu zitzaizkidan. Erakargarriagoa egin beharko dute Amaia *Koipe*-k eta bere lagunek animalien erabileraren aurkako diskurtsoa jendea erenganatu nahi baldin badute. Nik ez nuen umeentzako arriskurik ikusi, eta ez dut uste txahal txikiek ezer sufritu zutenik. Berdin jola-

sei dagokienez, parte-hartzaileak nagusiagoak baziren ere. Polita oso.

Urriko asteburuko egitarauari buruz ezin askorik esan, ez bada *Urola Kostako Hitza*-n irakurritakoa. Hori bai, ekitaldi ugari izan ziren, eta egunero-egunero izan zuten leku-txoa prentsan, eta hori azpeitiarron interesaren ezaugarri izango litzateke. Lagunaren Aritz semea ere han agertzen zen argazki batean, zezen-gurdiari torero pasea eginez. Argi dago Azpeitia sokamuturraren zalea dela. Eta ni, kanpoan. Erdaraz esaten den moduan, zezenak harrapatu nau.✘



|||||||joxin iturriotz||||

|||GAI BAT, BI IKUSPUNTU|||||

tabakoaren Legea. Egokia iruditzen al zaizu 2010etik aurrera Leku publiko guztietan, taberna eta aisiaLdi guneetan, erretzea debekatzea?

Negoziorako galera

Ni neu ez naiz erretzailea, baina tabernetan erretzen utzi beharra dagoela iruditzen zait. Gaur goizean, esaterako, hamar bezerotik zazpi erretzen ari ziren. Datorren urtetik aurrera indarrean sartuko den lege berria dela eta, gure tabernan erretzea debekatu gero, zer egingo luketen galdetu diet. Etortzeari utziko diotela erantzun didate eta etxean hartuko dutela ebakia, zigarroa errez. Nola esango diot ba nik tabernara egunero, txikito bat hartuz zigarro bat erretzera datorrenari, erretzea debekatuta dagoela! Negozio mailan galera handia litzateke. Eta ni honetatik bizi naiz, honetatik jaten dut.

Tabakoa txarra dela diote, baina hori bezala gauza asko daude osasunarentzat txarrak direnak. Erretzea benetan, esaten duten moduan, horren kaltegarria bada, erretzea debekatu beharrean, itxi ditzatela tabako fabrikak. Baina, noski, negozio horren atzean sekulako iturria dago batzuentzat, zergak direla eta ez direla. Lege horiek denak diru kentzea direla iruditzen zait.

Tabernaria ez da tabakotik aberasten, goikoak dira negozio honetatik dirua ateratzen dutenak. Neu arduratzen naiz tabako makina betetzeaz eta bi egunean behin, Chester eta Ducados markako paketeak bete behar izaten ditut. Tabakoa 3.65 euro beharrean 8 eurotan jarri eta jendeak erretzen segi-

|||Erretzea debekatu beharrean, itxi ditzatela tabako fabrikak

|||||||ainhoa alberdi|||| (tabernaria)

Earkezion/k

Oso gustura jaso dut datorren urtetik aurrera indarrean sartuko duten lege berriaren albisteak.

Parrandazale amorratua naiz, baina erretzeko ohiturarik ez dudanez, nazka-nazka eginda nago, larunbatero zigarro kelarre usainarekin etxera bueltatzeaz. Gainera, gaztetan, nahiz eta nik inoiz erre ez, amaren marmarrak entzun behar izaten nituen. Halako tabako usainarekin etxeratuta, neroni ere erretzaile handi horietakoa nintzela uste baitzuen.

Horrez gain, tabernan, koadrilan gaudela, lautik bost erretzen hasten dira, deskantsurik gabe, neure inguruan eta, ondorioz, sudur-zuloetatik ke beltza sartze horrek amorrarazi egiten nau. Hori gutxi ez,

|||Datorren urtetik aurrera ea zigarro kiratsaren orde, usain goxoarekin bueltatzen naizen


eta ikusmen arazoak medio, lenti-llak ibiltzen ditudanez, seka-seka eginda izaten ditut. Eta, zer esanik ez, albokoa porrua erretzen ari bada.

Nolanahi ere, zalantza handiak ditut. Ez bainago seguru, indarrean jarri nahi duten lege hori toki publiko guztietan osotasunean

beteko den. Astegunetan jendeak legea errespetatuko duen esperantza badut. Baina, zapatu gauetan, bi zuritotik aurrera jendea le-geak hanka azpitik pasatzen zaizkio.


Ea datorren urtetik aurrera, zigarro kiratsaren orde, etxetik atera berritan izaten dudana usain goxoarekin bueltatzen naizen.✘

|||||||kepa alkorta|||| (ez-erretzailea)



Bidean erromes

Orreagatik Santiagorako bidea bizikletaz egin dute Iñaki Portilla 'Pitxin'-ek, Luixmari Etxeberria 'Kafe'-k eta Extanix Agirre 'Enpangain'-ek.  Ainitze Agirrezabala



▼ 800 KM.

Irailaren 19an ekin zioten bidaiari hiru azpeitiarrek. Orreagatik irten ziren eta zortzi egunetan bizikletan 800 km egin ondoren, Konpostelara (Galiziara) heldu ziren. Bidean izerdia majo bota bazuten ere, jan eta edan bapo egin dute; baita bidean izandako pasadizoekin barre egin ere.




▲ LOKATZETAN SARTUTA.

Nahikoa lan izan zuten Perdonen bizikletaz aurrera egiten. Bidaia hasi bezperan sekulako euria bota zuen eta lokatzetan sartuta, gurpilak atera ezinik ibili ziren.

▼ ARDOA NAHIAGO.

Bidean taberna edo ostaturen bat ikusiz gero, ez ziren sartu gabe geratzen. Ardo botila ipurdi bistan laga dute; ur botila, berriz, ekarrita bezalaxe beteta ikus daiteke.





▲ **SEKULAKO ALDAPAK.**

Cruz de Ferron (1.490 m) ateratako argazkia: 'Enparangain' eta 'Kafe' bidean egindako lagun kataluniarrarekin. Posteari lotuta kamisetak-eta utzi ohi ditu jendeak, ohitura gisa.

► **MASAJEAK EMATEN.**

Urteek ez dute barkatzen, eta erdoiltzen hasitako makinaren gisara, masaje eta igurtzi batzuen beharra izan zuten hauek ere. 'Pitxin'-i nahikoa lan eman zion eskubiko izterrak. Eskerrak, bidaia lagun onak zituen alboan. 'Enparangain'-en masajeek mesede ederra egingo zioten.

▼ **LEONEN.**


Leongo katedralaren atarian. Orreagan meza entzun eta latinez kantuan aritu baziren ere, gainontzeko katedraletara sartzea ahaztu zitzairen. Itxura guztien arabera, aitortzeko pekatu gutxi.



▲ **PINTXAZOA KONPONTZEN.**

'Kafe'-ri bi aldiz zulatu zitzaion gorpila, 'Enparangain'-i, berriz, hiru bider. Mekaniko lanak 'Pitxin'-ek igiten zituen.






▲ **SEKULAKO KIRATSA.**

Hala iruditu arren, ez da ari taxiari deika. Erromesentzat egokitutako aterpetxeetan egiten zuten lo. Orreagan ateratako argazkia da hau eta literaz betetako gela handi horretan ez zen falta izerdi eta hanka usairik. Gauean, berriz, zurrunga hotsa sekulakoa omen zen.



▲ **ITURRIKO ARDOA.**

Eskerrak bidean alkoholemia kontrolik tokatu ez zitzairen. Ezkerretara kokatutako kartelak horrela dio: "Erabilera arauak: Abusatu gabe edatera atsegin handiz gonbidatzen zaitugu. Ardoa eramán ahal izateko erosi beharra dago". Kantinplorarik, beraz, ezin izan zuten ardoz bete. 🍷



Oholtza gainekeo terapia

Eguneroko errutinarekin hautsi eta astean pare bat orduz lagun giroan ondo pasatzea dute helburu emakumeen antzerki tailerren. 📎📞 **Ainitze Agirrezabala**

Iritsi zaio egun handia. Elizara joan eta apaizaren aurrean, 'bai, nahi dut' esateko ordua. Baina, ezkondu nahi al du alabak benetan? Ezkontzeko eguna ailegatu zaion alabaren eta bere amaren arteko elkarriketako zatia entseatzeko harrapatu ditu Uztarriak emakumeen antzerki tailerreko antzezleak. Alaitz Olaizola da taldearen animatzailea, eta bakoitzak egiten dituen mugimenduak eta esaten duena arretaz jarraitzen ditu, gidoia bere bidetik ateraz gero, esketxa moztu eta okerrak zuzentzeko.

Antzerkiaren aitzakian, ostegunero biltzen dira dozena bat emakume 15:00etatik 17:00etara, Sindikatu Zaharreko azken solairuan. "Taldea ederra dugu", dio Olaizolak: "Niretzako pozgarriena, langileak, gazteak, etxekoandreak... denak antzerkiaren aitzakia horren bueltan elkartuta ikustea da". Taldeko gazteenak 19 urte ditu; zaharrenak, berriz, 71. "Tailerreko ariketetan parte hartu eta irrendakoa elkarrekin kafetxo bat hartzeko ohitura dugu. Gazteek helduekin esperientziak nola elkarbanatzen dituzten ikustea oso polita da". Egunerokotasunetik irten eta pare

||| AZAROKO BI EGUN |||||

21. Lakrikun antzerki taldeak 'Grebak gaude' obraren bigarren zatia estreinatuko du: 'Prest gaude'.

22. Emakumeen antzerki tailerrek 'Autobusaren zain II' lana eskainiko du.

bat orduz lagun giroan ondo pasatzea dute helburu emakumeen antzerki tailerren.

Alaitz Olaizolak emakumeen antzerki tailerentzat idatzi duen seigarren obra da *Autobusaren zain II*. Antzerki lan hauek Udaleko Parekidetasun Sailak urtero, maiatzean, ikasurte bukaerarako antolatzen duen festan estreinatzen dituzte. Ondoren, azaroan, Antzerki Topaketan ere antzeztu ohi dituzte.

Marikarmen eta Arroxa Borda ahizpak, Ane Arenas, Gurutze Eizmendi, Erika Olaizo-

la, Garazi Urbina, Miren Alcedo, Amaia Garmendia, Ahizpea Ibarbia, Lurdes Mendizabal, Pili Lizarburu eta Rosamari Alberdi antzerkiaren magiak sorgindu ditu. Izan ere, bat baino gehiagorentzat, oholtza gainekeo terapia da antzerkia.

Gidoiarekin komeriak

Antzerkia taldeko lana izaki, gidoiaren parte dira bakoitzak esan beharrekoa ondo ikasita edukitzea eta esan beharreko hori noiz esan jakitea. Bati baino gehiagori izerdi larria atera izan zaio, testua behar bezala ikasi eta ondo landuta edukiagatik, oholtza gainera igo eta hitzik esan ezinda geratzean.

Amaia Garmendiaren esanetan, bere "arazoa testuak ikastea" da: "Gidoia ikastea oso gogorra da niretzat. Aurreneko obran eskue-tan mapa bat nuela atera nintzen eszenatoki-ra. Nik esan beharreko testu guztia mapa hartan zegoen, baina nahi gabe mugitu egiten nuen mapa eta jendea konturatu egin zen. Barre ederrak egin zituzten ikusleek". Jardunaren poderioz, ordea, taldeak "garapen bat izan" duela dio animatzaileak: "Gidoiak idaz-



Emakumeen antzerki tailerreko antzezleak, plazako kioskoan. Goian, ezkerretik eskubira: Ane Arenas, Amaia Garmendia, Miren Alcedo eta Alaitz Olaizola. Behean, ezkerretik eskubira: Erika Olaizola, Garazi Urbina, Gurutze Eizmendi, Rosamari Alberdi eta Marikarmen eta Arroxa Borda ahizpak.

terako garaian paper luzeagoak idazten ditut, gehiago garatutakoak. Bakoitzarengan pentsatuta eta moldatuta idazten ditut obrak eta denborarekin gidoiarena dominatuz doaz". Olaizolak eman dion rolik onena, hirugarren obra honetako dela dio Garmendiak: "Mutuarena egiten dut. Baina, ez ezazue pentsa, horrek ere bere lana du!". "Noski! Espresioa asko landu behar duzu eta", erantzun dio Gurutze Eizmendik.

Testua hitzez hitz ikasi, baina behar den garaian hitzik egin ezinda geratzea "oso gogorra" dela aitortu du Arroxa Bordak: "Taldea lana izanda, gaizki egiten duzunak taldean eragiten du. Dena ahazteko abilitadea dut nik. Lasaitzeko dauden terapia guztiak egin da ateratzen gara oholtzara, baina, hala ere, makina bat anekdota badituz, enel!". Kontatu, kontatu. "Behin, obra bat antzeztzen, esan beharreko hitza ahaztu nuen. Barrutik 'kondoia, kondoia!' txibatzen zidaten. Neuk ez, baina ikusleek ederki entzun zuten eta publiko osoa 'kondoia, kondoia!' esaten hasi zen".

Memoria fresko, erdoilik gabe, eduki arren, Rosamari Alberdirri arrotza egiten zaio euska-

rako testuak ikastea. "Ez nuen sekula pentsatuko antzerkia egitera ailegatu behar nuenik eta, begira, zazpi urte daramatzat. Gainera, guk eskolan beti dena erderaz egin izan dugu eta, hasieran, oso gaizki pasatzen nuen euskaraz leitzen. Zenbat aldiz irakurtzen ote nuen gidoia, testuari zentzua eman nahian. Baina, orain artean zerbait egin dugu eta gustura. Sekulako giroa dugu taldean".

Edade batetik aurrera burua ez da gaztetan bezain fresko izaten, eta gidoiak ikasteko sistema zeharo bereziak erabiltzen ditu zenbaitek. "Arroxak eta nik asteartetan arraindegian topo egiten dugunean geure izenez agurtu ordez, obrako izenak esaten ditugu: Kaixo Pilartxo, kaixo Yoli!", esan du Marikarmen Bordak. Etxekoek ere testua buruz ikasten bukatzen dutela dio Alberdik: "Nik kasetean grabatzen dut eta dena. Alabak gainontze-koen paperak egiten ditu eta nire txanda denean nik hitz egiten dut. Gero, etxeko lanak egiten ari naizela, kaseta behin eta berriz entzunda ikasten dut esan beharrekoa".

Obran antzezteko behar duten arropa, berriz, beraiek inguratzen dute. "Batek gauza

bat, besteak beste bat... dena geure artean egiten dugu", adierazi du Ahizpea Ibarbiak. Obrak idazterakoan, jantziei dagokienean "ez konplikatze, erraz moldatzeko modukoak" egiten saiatzen dela dio Olaizolak: "Rosamarik [Alberdi] denetik du. Munduan zehar urtero bidaiatzen du, eta beti ekartzen du zerbait. Etxean arsenalak du honek". "Bai, arropen museoa", gaineratu du Eizmendik.

Denentzako eskola

Antzerki tailerraren baitan ez dela antzerkia bakarrik lantzen dio Olaizolak: "Taldea ezinbestekoa da, errespetua nola ez, elkarri entzuten jakite hori. Bakoitzak bere helburu txikiak ditu eta horiek kanpotik ikusten dira". Miren Alcedo Portugaletekoa da, euskaldunberria eta hikako forman elkarriketa biziak lehenengo aldiz tailer honetan ari da probatzen. "Tailer hau denontzako ari da izaten eskola", adierazi du animatzaileak.

Eszenatokira igotzen diren aldiro nerbioak dantzan izaten dituztela diote guztiek. "Lehendabiziko aldian, zazpigarrengoan, baita hamargarrengoan ere! Beti!", dio Marikar-

►men Bordak. "Errespetua beti ematen du eszenatokiak. Ikusten egon ala oholtzan antzeztan, alde ederra dago", gaineratu du Arroxak. Alberdiren esanetan, *Goenkale*-ko aktore horiek ere beraien estuasunak pasatzen dituzte: "Amaiak, Ahizpeak eta nik *Izarren Argia* filman hartu dugu parte eta euren buruari aktore titulua emanda duten haiek ere nerbio ederrak izaten zituzten, puf eta puf, grabatzen hasi aurretik gimnasia egiten eta. Baina, haien pareko antzeztu genuen guk ere". Ane Arenasen esanetan, "beharrezkoa da nerbio puntu hori izatea; bestela antzerkiak ez du zentzurik. Azkoitira korrikan bost joan-etorri eginda bezala bukatzen duzu". "Ematen du ez dugula eszenatokia nahi, lotsa eman eta gogorra delako", bota du animatzaileak: "Baina, errealista izanda, nik uste dut antzerkilari bezala, oholtzara igotzean denok izaten dugula beldurraren inpresio hori. Baina, hori gabe ere ezin bizi, ezta?".

Beldurrik handiena, Arenasen esanetan, "oholtzara igo, eta zeure buruak huts egingo ote dizun, horrek ematen du". Erika Olaizolari, aldiz, "lotsa handiagoa" ematen dio tailerrean hamar lagun aurrean inprobisazio ariketak egiteak, areto batean 200 pertsonen aurrean jarduteak baino: "Nik nahiago dut aurrean bost lagun edukitzea baino 200 edukitzea. Ni gehiago lotsarazten naute bost lagunek. Areto batean ez dut inor ikusten, jendea ikusten dut, nik ez diot inorri begiratzen, aurrrera begiratzen dut eta iluna ikusten dut". Gurutze Eizmendik, berriz, antzerki obra bat egitera eszenatoki gainera igotzen den guztietan hala esaten omen dio bere buruari: "Ene! Zeinek agindu ote dit hemen egotea! Ai, zer ondo egongo ote nintzateke begira! Gero, egiten duzu eta da halako zera...".

Komedia ardatz

|||"Norberak bere buruaz parre egiten jakitea oso garrantzitsua" dela dio Alaitz Olaizolak. Emakume tailerrentzako obrak, izatez, maiatzean ikusle go jakin bati antzezteko asmoz idazten ditu.

"Emakumeak, familiak, inguruko jendea izaten da ikusten eta, horregatik, komediatik lantzen ditugu gaiak. Beraiek ere hobeto sentitzen dira umorea eginez; drama etxeetan lehendik ere badago-eta".

Denak emakumeak diren partetik "gaiak lantzeko nortasun edo ikuspegi hori" sekula ez dutela ahazten dio. "Nahi gabe egiten den zerbaít da; horretan pentsatu gabe, idazterakoan irteten du emakumetasunaren errebeldia puntu horrek. Askotan, komedia itxura izan eta parre egiten dugun hori barru-barruan tragedia handi bat da".

Antzerki obra baten azken helburua oholtzara gainera ailegatzea dela dio animatzaileak: "Hori da saririk handiena. Obra bat idazten ari naizela, oholtzara gainera mugimenduak-eta dena imajinatzen ditut. Obra bakoítza nire semetxo bat da".

Antzezle, idazle, zuzendari... erregistro askotako emakumea da Olaizola: "Idazten ikaragarri gozatzen dut; emakumeen antzerki tailerra, animatzaile bezala, bizi egiten dut eta antzezteka sekulako plazerra da. Momentu hori ere ezin didazu kendu. Zertara nagoen, horretaz gozatzen dut. Nik uste antzerkiak baduela erakargarritasun hori". Antzerkiaren sareetan eroriz gero, betirako sorgintzen du, nonbait.

Eguneroko errutinarekin hausteko bidea da antzerki tailerra emakume hauentzat. Zentzuitzat, ordea, antzerkia hori baino gehiago da. Antzerkiaren munduan jarraitu, zaildu eta gora egiteko asmoa dute, esaterako, Ane Arenasek eta Erika Olaizolak: "Ni antzerkian aritu izan naiz beti, baina beti neure adineko bakarra izan naiz eta ez dut babesik izan", kontatu du Olaizolak. Tailer hauetan ezagutu zuten elkar Arenasek eta Olaizolak. "Elkarrekin ideiak sortu eta horiek gauzatzeko lantxo batzuk egiten-eta ari gara", dio Arenasek. Aurten, gainera, interpretazioarekin lotutako ikasketak hasi ditu Olaizolak, Donostian.

Azpeitiko Antzerki Topaketen baitan, Udalak urtero ematen du Txalo Saria. Aurtengogan, Imanol Elias sarituko dute eta Erika Olaizolak eta Ane Arenasek antzerkitxo bat eskainiko dute sari horren baitan, azaroaren 21ean, udaletxeko areto nagusian.

Lagun berrien zain

Emakumeen antzerki tailerreko taldea lagun berrien zain dagoela eta gonbidapena luzatu nahi izan dute. Alaitz Olaizolaren esanetan, "gure taldea ez da talde itxi bat. Hemezortzi urte beteta eta emakumea bada, gu irekita gaude. Guk urtero planteatzen dugu tailerra eta jende berria erraz uztartu izan da taldera. Tailerrera joan, pixkat soltatu; berriekin, batez ere, elkar ezagutze prozesu bat egin eta, gero, obratxo bat prestatuko dugu". Norbait obra prestatzerik nahiko ez balu, norbait paperik nahiko ez balu, horretara inor ez dagoela behartuta, argi utzi nahi izan du Olaizolak. "Baina, ostegun arratsaldetan, pare bat orduz, dantza pixka bat egin, inprobisazio ariketak landu eta taldeko giro hori bizi nahi baduzu, etorri, zain gaude eta".

KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

- **Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
- **Pintura** 17:30/19:00
- **Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

Koh Tao
OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Herriko zenbait gizarte eta kultur talde borroka luzea ari da izaten, euren beharretarako lokala lortzeko bidean. Zazpi urte dira emakumeen antzerki tailerra abian jarri zutela eta, tailerreko animatzaile Alaitz Olaizolak adierazi duenez, gaur gaurkoz, oraindik, ez dute "leku egonkorrik": "Gure lanak emaitza onak emateko leku egonkor bat behar dugu, erreferentzia puntu bat, gure materiala jaso eta sartu-irten librean, malgutasunez, entseatzeko".

Zazpi urteotan egon diren toki guztietan "ondo" egon direla dio animatzaileak. Baina, "provisio-naltasun eternal" horrekin "nazkatuta" daudela eta "taldea erre eta nekatu" egiten dela gaineratu du: "Nik onartzen dut, nire jarrera ez dela duela sei urte nuen berdina eta, orain, exijentzia handiagoa dugula. Izan ere, urteak aurrera doazen bezala eta taldeak gaitasunak garatzen dituen heinean, esperientzia gehiago hartu eta gure obrek ere maila handiagoa eskatzen dute. Momentu bat ailegatu da, guk atzera ez dugula egin nahi, badakigulako Udalak badituela lokalak".

Batetik bestera saltoka

Antzerkia bakarren bati "denborapasa" iruditu arren, bera lanean "serio" aritzen dela adierazi du Olaizolak: "Ezin dugu beti titiriteroak bezala ibili, titiriteroak izanagatik, orain hemen, gero han".

Lehen lau urteak Baigerako lehenengo pisuan igaro zituzten. "Gauza askotarako erabiltzen zen toki hura eta bazituen hainbat muga: ostegunetan bakarrik joan ahal gintezkeen eta 17:00etan puntuan libratu beharra zegoen,



Alaitz Olaizola, Sindikatu Zaharreko hirugarren solairuan.

Erreferentzia puntuaren beharra

Egindako lanak emaitza onak emateko leku egonkor bat eskatzen dute. Malgutasunez entseatu eta materiala jasotzeko erreferentzia puntu aldarrikatu dute.

ondoren beste gauza batzuk zeudelako. Korrika eta presaka ibiltzen ginen eta osteguna ez beste egunen batean entseatzeko gela lortzea ez zen batere erraza".

Gero, Sindikatu Zaharreko bigarren solairuko gelara bidali zituzten, hilabete batzuetarako. "Han ere denetik egiten da: hizaldiak, liburu aurkezpenak... eta

Baigeran bezala, hemen ere tailerra zen bakoitzean aulki eta mahai guztiak baztertu eta lekua antolatu behar izaten genuen. Giltza kontua ere nahaste handia zen", kontatu du animatzaileak. Izatez, lan horiek egitea "ez zaiela kostatzen" dio, baina "denbora galtzea" iruditzen zaie tailerra emateko "justuko bi ordu izanda. Horregatik diogu, aurrera begira gela hauek baino espezifikagoa den toki bat komeni zaigula".

2008/2009 ikasturterako, berriaz, Perretxiko edo oktogono bezala ezagutzen den gela bat utzi zieten. "Chi Kung eta antzerki eskolak ematen ziren han, ostegunetan. Geure giltza geneukan eta malgutasun osoa genuen nahi genuenean entseatzera joan edo materiala gordetzeko. Erreferentzia puntu izan zen hura guretzat. Zoriona".

Ikasturte berria hastear zaudela, ordea, helduentzako eskolekin gelak bete zirela eta lokala utzi beharko zutela jaso zuten abisua Udaletik: "Beno, eta, zein izango da ordeko lokala? Zapo Txokoko gela proposatu ziguten, baina ezezkoa eman genuen. Gazteek erabiltzen duten lokala da, eta han ere arazo bera izango genuke. Aurrera beharrean, atzeraka goaz". Une honetan, Sindikatu Zaharreko hirugarren solairuan ematen dute tailerra.

Olaizolaren esanetan, "Azpeitiko Antzerki Topaketei —euskarazko bakarrik— Euskal Herri mailan garrantzia handia eman arren, herriarrok lokalik gabe batetik bestera gabiltza". Politikoez dituzten desadostasunak medio, beraien moduko jendea "provisio-naltasun eternal horretara kondentatuta" dagoela salatu du.★

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eltz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

lentzeria
mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

Clamendi
LORADENDA
Goiko - Kale 4 - Tfn 81 13 49

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com


Bidean euskaraz

Kotxeko karneta ateratzeko ikasleak gaztelaniarekin zituen komeriak bukatu dira. Gidabaimena euskaraz lortu ahal izateko aukera dago orain. 📝📷 Nekane Zinkunegi

Hemezortzi urte bete orduko, jendea abiada ederrean joaten da kotxeko gidabaimena ateratzera, autoeskolara. Orain artean, ordea, iritsi eta komeriak izaten ziren. Liburuak hartu eta: *"Si usted va por una vía interurbana con un vehículo de tracción animal..."* bezalako esaldi arrotzak irakur zitezkeen. Zorionez, arlo honetan urrats esanguratsuak eman dira eta herritarrei gidabaimena (B1, oraingoz) euskaraz atera ahal izateko aukera eskaintzen zaie, pasa den maiatzetik.

"Gipuzkoa mailan herri gutxitan hitz egingo da hemen adina euskaraz" dio Asier Larrañagak, Urola autoeskolako semeak. Gauzak horrela, interesgarria iruditu zitzaion herritarrei gidabaimena (B1) euskaraz atera ahal izateko aukera hori eskaintzea.

Dagoeneko badute horretara egokitutako materiala, esku-liburua eta ordenagailuz egiteko testak zein azterketa teorikoa euskaraz bidaltzeko eskaera egiteko aukera. Material hori dena eskura izan zutenean, eskaini zitzaion jendeari teorikoa euskaraz egiten hastea, "baina oraindik ez da inor animatu" kontatu du Larrañagak. "Izan ere, testak hemen bertan ordenagailuz egin beharrekoak dira eta etxean ez dago jarraitzerik" dio. Jendeak horren aurrean nahiago duela "lehengoan segi" gaineratu du. Gainera, hainbeste urtean martxan dagoen autoeskola izanik, jende askok atera du bertan gidabaimena eta "beti-



Gida baimena euskaraz ateratzea aukeratzen dutenek testak ordenagailuz egin behar dituzte. Goiko argazkian testa euskaraz


kotik irten eta aldaketa berrietara ohitzea" kostatu egiten dela dio.

Proba-pilotua

Nolanahi ere, saiatzeko asmoa dutela baieztatu du Larrañagak: "Oraindik ez dakigu zehazki noiz, baina proba-pilotu antzeko bat egiteko asmoa badugu". Horretarako, aurrez, taldetxo bat gidabaimena euskaraz egitera animatu nahi dute, ordenagailu berriak ekartzen dituztenean. Talde horri hasieratik bukatu bitarteko jarraipena euskaraz egingo zaio eta eskola teorikoak ere aparte emango zaizkio. "Izan ere, euskarazko materiala azken batean gaztelaniazkoaren itzulpen soila da, baina esku-liburua desberdin egituraturik dago" adierazi du Urola autoeskolako ordezkariak. Gainera, momentuz behintzat horrek ez lieke lan-karga gehiagorik ekarriko. "Teoriako klaseak orain ere euskaraz izaten dira taldean erdaldunen bat ez badago behintzat. Ondorioz, geu ohituta gaude euskaraz azalpenak ematera edukiak gaztelaniaz izan arren", kontatzen du.



Asier Larrañaga, Urola autoeskolako bere bulegoan.



ko argazkian testa euskaraz.

||| AITZINDARI |||||

Gidabaimena euskaraz ateratzeko materiala Debagoieneko Mankomunitateak sortu zuen pasa den martxoan. Azterketa prestatzeko eskuliburua, testak eta ikus-entzunezko materiala -grafikoak, hiru dimentsioko animazioak...- landu dituzte, besteak beste.

ESKAERARI ERANTZUNEZ.

Debagoieneko autoeskola baten eskaerari jarraituz hasi ziren proiektuarekin. Hala, jardun honetan esperientzia duen Igorreko Arratia autoeskolarekin elkarlanean landu zuten materiala. Aeol enpresa arduratu da guztia jasotzeaz eta konpromisoa hartu du aurrerago egin daitezkeen eguneraketak euskaraz ere jartzeko. Ordutik, mankomunitateak hainbat herritako autoeskolei eman die euskarazko materiala.✳

Larrañagak garbi du berak gidabaimenaren tramiteak euskaraz egiteko aukera balu ez lukeela ezetzik esango: "Aukera paregabea iruditzen zait; gainera, horrenbeste araudi aldaketarekin ikastaro asko izaten ditugu eta gehienak gaztelaniaz izaten dira". Proba-pilotuaren kontua sustatzera begira, beharrezkotzat jotzen du propaganda lantzea, baina autoeskolen arloan, modurik onena "ahoz ahoko komunikazioa" dela esan du.

Izan ditzaketen onura eta zailtasunen inguruan, euskaraz irakurtzera eta idaztera ohituta dagoen jendearentzat izango dela egokiena uste du. Euren garaian gaztelaniaz ikasi zutenei "zaila" egingo zaiela uste du: "Azken batean euskara batua da eta hitz tekniko ugari daude, horretarako herriko euskarak soilik ez du balio".

Legez, ibilgailu mota guztien gidabaimeak euskaraz ateratzeko aukerarik ez dago momentuz. Oraindik autoarena baino ez dago egokituta. Hala ere, aukera paregabea da autoko gidabaimena euskaraz ateratzea, Azpeitian autoa hartzeko beharra handia izanik. Baliabideak hor egonda, jendea animatzea da falta dena.✳

||| "Teorikoa euskaraz egitekotan, testak hemen bertan ordenagailuz egin behar dira eta etxean ez dago jarraitzerik"

ASIER LARRAÑAGA Urola autoeskolako arduraduna



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...


 ||||| jaione unanue |||||

||||| leire goenaga |||||

Zelai Luzeko uzta

Jaione Unanue. Ikusi al ditun Zelai Luzeko jardinetako azken moldaketak? **Leire Goenaga.** Bai. Igerileku aurrean ere ari ditun.

Jaione. Hasieran Kimu Bat-ekoen beste lan artistiko bat zela pentsatu ninan. Baratzeak egin behar dituzten, ez?

Leire. Bai. Egia esan ez zekinat fruiturik ematera iritsiko diren. Lehen ere loreak desagertzen hindunan.

Jaione. Hesi elektrikoa jarri beharko ditun.

Ingurugiroari kalabaza

Leire. Eta nori bururatu zaio hori?

Jaione. Ingurugiro Fundaziotik sortu dela uste dinat. Ikastaroak ere egongo ditun.

Leire. Herrian izango ditun lehen ere baratzeak ederki asko zainduak, baratzeak jardin bat baino zerbait gehiago ditun! Kristoren gauza panpoxak egiten ditun ingurugiro arloan, benetako arazoari bizkarra emanaz...

Jaione. Bai, neska. Ikusi besterik ez zagon fundazioko webgune bukatu gabea. Horrela esaten din patronoak atalean: "Ingurumen arloan kontzientzia duten eta eskualdeko beste eragileak bultzatzeko indarra duten bost patrono ditu Ingurugiro Etxea Fundazioak." Ba al dakin zein diren bost horiek?

Leire. Bota, bota...

Jaione. Azpeitiko Udala, Azkoitiko Udala, Lapatz, Azpeitiko Corrugados eta Azkoitiko Sidenor.

Leire. Egia esan, ingurugiroan zer esan handia ditun bostak. Kontzientzia gutxi ordea.

Jaione. Akaso txistea izango dun, webgunea bukatu gabe zagon eta. Gainera, euskaraz bakarrik zagon, erdarazkoa hutsik zagon, euskaldunak inuxenteago izango gaitun.

||| **JAIONE.** "Zer Euskal Herri egingo dinagu baserri eta baserritarrik gabe?"

||| **LEIRE.** "Hasi gaitezen herriko baserritarren produktuak erosten"

Leire. Gustura jakingo niken Azpeititik abiatu zen Baserritar Gazteen Martxan parte hartu zutenek zer pentsatzen duten honi buruz. Hauek bai bazekiten ingurugiroa zaintzen, nahiz eta ez dieten asko laguntzen hik esandako patrono hauek.


Jaione. Baserritik bizitzeko oztopoa besterik ez ditun bidean, baina zer Euskal Herri egingo dinagu baserri eta baserritarrik gabe?

Leire. Benetan herrian baratzeak, baserriak eta ingurugiro berdea bultzatu nahi baditugu... hasi gaitezen herriko baserritarren produktuak erosten!

Jaione. Orain, gainera, astearte goizaz gain ostiral arratsaldetan ere plazan ditinagu. Zein da aitzakia?*



Senidetasuna suspertuz

Hazparnek eta Azpeitiak duten senidetasuna sendotu asmoz hilaren 14rako egun pasa antolatu dute Lapurdiko herrira. Bi herrietako herritarren artean 'harremana piztea' da xedea.  **Ainitze Agirrezabala**

Azpeitiko eta Hazparneko udalak bi herrien artean duten senidetasuna sendotu asmoz, Azpeititik hara egun pasa antolatu dute, hil honen 14rako. Irteera honen "helburu nagusia bi herrietako taldeetako jendeak elkar ezagutzea" dela adierazi du Azpeitiko Udaleko zinegotzi Onintza Etxeberriak. Udalak herriko taldeei dei egin die Hazparnerako irteeran parte hartzeko.

Herritarrak elkarlanean

Oraingo irteera honetan, batik bat, kirol, hezkuntza eta kultura arloetako taldeak gonbidatu dituzte. Baina, aurrera begira, bste arloetara zabaltzeko asmoa ere badagoela jakinarazi du Etxeberriak. Senidetuta dauden bi herrietako taldeen arteko "harreman piztea" da irteeraren helbu-

DATUAK

Zer. Hazparnera irteera.
Eguna. Azaroak 14 (larunbata).
Ordua. Egunguztia
Tokia. Hazparne.
Antolatzailea. Azpeitiko Udalak eta Hazparneko Udalak elkarlanean antolatu dute.

rua: "Bi Udalak elkarrekin harremanetan hastea baino, herritarrak herritarrekin elkarlanean hastea da egun pasa honen xedea. Gainera, etorkizunean, elkarlanean proiektuak aurrera eraman nahiko balira Udalak diru laguntzak emango lituzke".

Azpeitia 1980ko hamarkada hasieratik dago Hazparnerekin senidetuta. 5.500 biztanle dituen Lapurdiko herria da Hazparne.*

SENIDETASUNA

1980

ko hamarkadatik. Azpeitiak eta Hazparnek hogeitaka urte daramatzate senidetuta.

3

arlotako taldeak. Kiroletako, kulturako eta hezkuntzako taldeak eta lagunak daude gonbidatuta Hazparnera joateko.*



Hazparneko eta Azpeitiko danbor jotzaileak, plazan, udaletxe aurrean. 2006ko argazkia da. **Nerea Uranga**

BESTERIK

1 Ingurumen hamabostaldia

Fenomeno atmosferikoak ulertzeko erakusketa izango da ikusgai; baita inguruarekin lotutako hitzaldi zikloa ere: klima aldaketa, landare inbaditzaileak eta bioaniztasunaren galera izango dituzte hizpide.

Eguna. Azaroak 2, 3, 11 eta 12. **Ordua.** 18:00 eta 19:00.

Tokia. Betharram aretoa.

Antolatzailea. Azpeitiko udala.

2 Emakumeak eta indarkeria

'Amazonas, mujeres indomables' eta 'Mujeres creando' dokumentalak ikusi ahalko dira. 'Ninguna mujer nace para puta' liburua oinarri hartuta, berriz, prostituzioaren inguruko eztabaida izango da.

Eguna. Azaroak 10 eta 14.

Ordua. 19:00 eta 19:30.

Tokia. Betharram aretoa.

Antolatzailea. Emakumeen mahaia eta parekidetasun saila.

3 VI. Ardo dastaketa eguna

Araba-Errioxa eta Errioxako hogeitak upategitako ardoak dastatu eta pintxo desberdinak jateko parada izango da. Ardo edateko kopak plazan bertan erosi ahalko dira.

Eguna. Azaroak 21 (larunbata). **Ordua.** 11:30etik 14:00era.

Tokia. Plazan Nagusia **Antolatzailea.**

Azpeitiko Udala.*

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

BLOGAK**I. Oktoberfest ISB-2009**

Badakit bai, lagunok, igandean amaitu ziren festako kontuak aipatzeko berandu samar nabil bloga eguneratzen, baina Azpeitian pasatu ditugun egunak igaro eta gero, aurrenik burua altxatu beharra zegoen poliki-poliki zorabiorik jasan gabe, eta jarraian jabetu non nengoen kokaturik, etxean edo berdura plazan.

(...) Egun gogorak izan dira garagardoko hauek, pentsatzen dut bai zer ariko zaretzen pentsatzen (ibili adi berriz lau egunetan...), baina zer egingo dugu ba!! Aldian behin horrelako astindutxo batzuk eman egin behar zaizkio gorputzari bizirik jarraitzen duen edo jakiteko, bestela eguneroko monotonia egiten baida bizitzaren jabe.

Azpeitian antolatzen zen I. Garagardo Festa zen, eta izugarriko arrakasta izan du zalantzarik gabe. (...) Giro bikaina izan

Aldian behin horrelako astindutxo batzuk eman behar zaizkio gorputzari

INKESTA

Langabezian dagoen inor ba al daukazu familian?

Bai. %48,24.

Ez. %51,76.

Oraingo galdera. Hartuko al duzu A/H1N gripearen txertoa?

dugu festaren azken unera arte. Azpeitiko jendea gustura zen, igaro ziren egun bikainak gogoan hartuz, hurrengo urtean jarraipena eman beharra zegoela entzuten zitzaion edozeini. Iraurgiko antolatzaileen poztasuna ere nabarmena zen, arrakasta ikusirik aurretik zituzten kezka guztiak desagertu baitzitzaizkien, hori bai, lana gogotik egin ondoren.

Argazki bilduma ikusgai

Egun polit hauetan, argazki kamera ondoan dudala ibili naiz eta irudi bitxi batzuk lortu ditugu denon artean. Argazki guztiak ikusi nahi badituzue bi aukera ezarri dizkizuet; adibidez Facebook-ean: Hemen, nire helbidea aurkituz gero, argazki guztiak daude ikusgai, *Oktoberfest 2009* izenburua duen karpetan.*

haritz ibarzabal

EFEMERIDEAK**1729**

Hazteko asmoz txerririk ezin erosi. Kalteak sortzen zirela-eta, herriko agintarien baimenik gabe txerririk ezin zitekeela erosi zabaldu zuten.

1744

Loiolako atarian haur bat aurkitu zen. Nork utzi zuen ez zen jakin eta Iruñeko Ospitale Nagusira eramatea erabaki zen.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. *Herria* historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

BIDEOAK


'Azpeitiko sokamutilak'.*

www.uztarria.com
azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita





HITZ GEZIDUNAK

	Abere basa		Norabait		Itxurak		Luzapen		Airetiko bidea
	Okertu		Alkaloide mota		Bizkaieraz, sobera		Taninoa		
	Sinatzeraren behartu								
Zaluki									
IRUDIAN		Zanbrana							
Hamabikoa		Amerikako estatua							
						Ume			
						Nafarroako ibarra			
Gai bakun, ez metal							Amerikako Estatu Batuak		
Itxurazalea							Nafarroako ibaia		
								Naizen hau	
								Bizkaiko mendia	
Irlanda				Nafarroako ibaia					500
Bizki				Erbioa					Titanioa
				(aditz izen) eragin					
				Oxigenoa					
Bazterrazia									

Egilea: Luma


* Arabako hiriburua

HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUBI: 1. Behiak eta gisakoak zaintzen dituen abeltzaina. 2. Osmioaren ikur kimikoa. Frantziako hiria. 3. Agiri, dokumentu mota. Samarioaren ikur kimikoa. 4. "Sinesten dut" hitzez hasten den otoitzaren izena. Bizkaiko ibaia. 5. Frantziako hiria. Euskal Herriko Alderdi Komunistak. 6. Egoskari mota. Donostiako auzoa. 7. Uribe Kosta. Ahalik eta. 8. Aitzina. Musika nota. 9. Gaizkataren arraba gazituak.

GOITIK BEHERA: 1. Botoak jasoak. 2. Jarlekua. 3. Hidrogenoaren ikur kimikoa. Gipuzkoako herria, Deba Beherean. Rubidioaren ikur kimikoa. 4. Izaki edo gauzaki bat adierazten edo gogoratzen duten lerro, kolore edo formen multzo. Jardun. 5. Kartsutasun. Bihia, garaua. 6. Emakume izena. Gipuzkoako herria. 7. Indioaren ikur kimikoa. Lo egiteko altzaria. Kontsonantea. 8. Neskatoa. 9. Asmatutakoak.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2			■						
3							■		
4						■			
5					■				
6				■					
7			■						
8							■		
9									



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	I	Z	A	R	A	R	O	K	O	Z	●
E	T	I	G	A	R	E	●	I	K	I	B
D	●	O	R	B	E	●	E	I	R	E	●
I	N	●	A	T	A	T	A	R	U	X	I
B	E	A	●	O	N	I	O	N	E	L	●
E	M	E	K	U	●	A	B	A	M	A	H
R	A	N	A	R	A	N	B	A	N	Z	●
I	Z	A	A	R	A	N	A	S	I	●	
A	U	A	T	A	L	A	K	A	K	●	
●	L	●	K	●	N	●	B	●			

HITZ GURUTZATUAK

K	A	R	R	A	R	A	B	K	A	K
A	L	●	A	E	R	R	A	U	R	A
T	A	I	●	B	A	L	●	U	K	A
E	T	E	A	I	●	A	●	T	E	A
K	A	H	●	E	I	●	A	L	B	I
A	K	●	O	●	D	O	●	K	R	E
M	S	●	A	L	U	D	●	Z	E	Z
S	E	N	●	N	R	E	●	S	O	●
A	I	N	●	A	I	Z	●	H	E	B

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



|||ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Azaroak 19 (osteguna) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da |||ZER DAGO SOBERAN/////ZER DAGO FALTAN.

|||ZURE IZEN-ABIZENAK

|||TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN URRIKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZEIN DA?



TXETXU IRIARTE ERREMONTE JOKALARI OHIA



IRABAZLEA



Idoia Gurrutxaga Uztarrriako bazkidea izan da lehiaketako 110. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Idoia Gurrutxaga, saria eskuetan duela.

Odroizola Ardoetan

Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008
GETARIAKO ELKANO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Urteko ardo berria, bodegako mahatsik onenarekin egindakoa.

Eltzekoa

Suaren aurkikuntza izan zen, hein handi batean, gizakien zibilizazioaren sorrera. Gaur egun, elikagaien erdiak edo gehiago berotu eta gero kontsumitzen dira: egosita, erreta edo frijituta.

Beroaren bidez azukreak, proteinak eta koipeak aldatu egiten dira. Gure zapora zentroa prestatuta dago aldaketa horiez gozatzeko, baina bitaminei dagokienez, galtzen irteten dugu, asko uretara pasatzen baitira. Hau, batez ere, B eta C bitamina konplexuekin gertatzen da.

Janariak prestatzerakoan ez ditzagun zati txikiak egin, baldin eta irakiten dagoen uretan sartzen ez baditugu. Denborarik ere ez dugu galdu behar; kalitatea eta, batzuetan, zaporea galtzen baitute.

Patataren kasuan, hobe dugu azal eta guzti egostea. Ez naiz inoiz izan heltze espresaren aldekoa, baina aitortu behar dut janariak osoago mantentzen direla beste ontzietan baino. Bikarbonato sodikorik ez da erabili behar begetalen kolorea politagoa izan dadin, bitaminen aberastasuna murrizten baitu.

Sukaldaritzan ahalik eta maniobra gutxienean egin behar da. Garrantzitsuena, harategira, arrandegira edo barazki dendara egindako bisita ahalik eta motzena izatea da, janariak gehiegi ez zatitzea eta prestatuta ahalik eta laburrena izatea.✱



||||||| **Julian bereziartua** |||||

MAIALEN ETXENAGUSIA aerobic-eko irakaslea



1. Jende gehiena noiz izaten da?

Maiatzean, udarako lirain jartzeko asmotan.

2. Arropa zabala edo estua?

Prototipoa markatua bada ere, eroso ibiltzeko zabala.

3. Step-a bai ala ez?

Kaia eta joku gehiago, step-arekin. Lekua finkatzen laguntzen du.

4. Gustuko duzun erritmoa?

Teknoa, pixkat markatzeko.

5. Gogorra al zara?

Jendea animatuta eta gustura dator, behintzat.

6. Mutilek beldurra al diote aerobikari?

Nesken kontua dela diote; baina, ateak zabalik dituzte.

5. Adikzioa sortzen al du aerobic-ak?

Bai. Gozatu egiten dut eta betetzen nauen gauza da.✱

✉ Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
Larrialdiak:
943-15 16 40

ALBAITARI KLINIKA

uztarria

PEUGEOT

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

ORKATZ KULTUR ELKARTEA

JAZKI moda

Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

domusa

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

uztarria.iragarkilaburrak.com

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...



www.iragarkilaburrak.com
txintxarri.iragarkilaburrak.com
otamotz.iragarkilaburrak.com
soraluze.iragarkilaburrak.com
elgoibarren.iragarkilaburrak.com
bidasoamedia.iragarkilaburrak.com
ukberri.iragarkilaburrak.com
oarsoaldeko hitza.iragarkilaburrak.com
tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

busturialdeko hitza.iragarkilaburrak.com
urola-kostako hitza.iragarkilaburrak.com
irutxuloko hitza.iragarkilaburrak.com
goierriko hitza.iragarkilaburrak.com
11barri.iragarkilaburrak.com
baleike.iragarkilaburrak.com
geugasteiz.iragarkilaburrak.com
etakitto.iragarkilaburrak.com

milaka bisita, egunero

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eksklusiboa

Jarri zure iragarkia!

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.

Bizitzaren eskuak

Berrogei urtetan zehar, Valentina Agirre emaginaren eskuak izan ziren Azpeitiko milaka haurrek munduarekin izan zuten lehen harremana.  **Uztarrria**

Valentina Agirre emaginarrena da Uztarrria Komunikazio Taldeak mar txoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako hirugarren zenbakia. Julian Bereziartua medikuarena izan zen lehena eta Leo Etxeberria sindikalista eta euskaltzalearena bigarrena. Valentina Agirrerren eskuak izan dira Azpeitiko milaka haurrek munduarekin izan duten lehen harremana eta 1987an hil bazen ere, gogoan dute oraindik herritar askok. Bere ingurukoek adierazi dutenez, emakume berezia izan zen Valentina, txikitatik desberdina izan zen. XX. mendea bete-betean bizi izan zuen eta emakumeek garai hartan bizi zuten zapalkuntza berak bizi nahi ez zue- nez, ikastea erabaki zuen, familiari eta gizar-teari aurre egin eta ikastea, gero lan egin eta buruaskia izateko. Gaztetatik izan zuen amatasun senagatik beharbada erabaki zuen erizain eta emagin izatea eta lan horretan aritu zen berrogei urtetan zehar, Azpeitian gehienbat, baina baita inguruko herrietan ere.

Olatz Prat kazetariak idatzi du biografia eta azaroaren 28an aurkeztuko du Uztarrriak. Aurrerapen txiki bat da jarraian irakur dezake-zuena.

Ikasteko grina txikitatik

1918. urtean jaio zen Valentina Agirre Egur-tza baserrian eta haurtzaro gogorra izan zuen. Izan ere, bere ama inude joan zen Donostiara alabari bularrrik eman gabe, eta ama



Valentina Agirre emagina.

gabe igaro zituen bere bizitzako lehen urteak. Etxeko alabetatik zaharrena izanda, ama pa-pera ere bete behar izaten zuen sarri. Txiki-txikitatik erakutsi zuen Valentinak ikasteko grina sutua, baserriko behiak zaindu behar zituela esaten bazioten ere, eskolara ihes egiten baitzuen neskatilak.

Pixka bat helduago zela azokara bidaltzen zuten baserriko barazkiak eta arrautzak saltzera eta han egon behar izaten zuen goiz osoan zehar. Arrautzak jateko gogoia izaten zuen sarri baina amak azokan saltzeko zirela esaten zion, ez zirela etxekeok jateko. Etxean, euskal baserri gehientsuenetan bezala, babarrunak jaten zituzten egunero, taloa, artoa eta noiz edo noiz arraina edo haragia. Valentina errebeldea zen, ordea, eta bizkorra, horregatik azokara bidean gordinik jaten zituen arrautzak.

Ez zitzaion goiz guztia berdura plazan igarotzea batere gustatzen, izugarri aspertzen zen. Topatu zuen, ordea, bere aspermenarentzako irtenbidea: Santiago kalearen hasieran zegoen Esperantxaren dendara joan eta garestiago saltzen zuen baserriko generoa, eta ondoren Kasinora joan –gaur egun Egaña gozotegia dagoen tokian– eta kafasne eder bat hartzen zuen opil batekin. Alde ederra!

16-17 urte zituenean Madrilera joan zen neskame eta zerbitzari. Baina, etxera itzuli



zen uda batean erabaki zuen hura ez zela betzetat bizimodua, ez zuela gustuko jauntxoan eta beraren artean zegoen desberdintasuna. Inoiz baino argiago ikusi zuen ikasi nahi zuela eta lan hobe bat topatu. Donostiako amatasun zerbitzuan emaginetarako ikasten hasi zen eta gero erizain ikasketak ere egin zituen. Koro, lehen alaba sabelean zuela egin zuen azken azterketa Valladoliden (Espainia).

40 urtez lanean

Etxabe pilotari dinastiako Jose Antonio Etxabe zumaiarrekin ezkondu zen Valentina 29 urte zituela eta bost seme-alaba izan zituzten. Dena eman zien haiei. Goizeko bostetan jaikitzen zen, ez zituen haginak konpontzen, ez zeukan arropa erosteko ere dirurik eta bazuetan, ezta jateko ere. Dena, zuen diru guztia seme-alabekin gastatu zuen, haiek eskola hoberenetara joan zitezten. Itokinak zituen etxe batean bizi ziren eta bere bost txikiei esaten zien, dirurik gabe ere, guztiek ikasi egingo zutela eta aurrera irtengo zirela. Ikasketak eman zizkien guztiei eta horiek ordaindu ahal izateko gogor egin behar izan zuen lana urte askoan. Zehazki 40 urtez aritu zen Valentina Azpeitiko amei laguntzen eta, noski, 40 urtetan eta horrenbeste etxetan sartuta, mila istorio bizi izan zituen.

Baserrietara sarri joan ohi zen eta astoan joaten zen haietara, berdin egunargiz zein gaez, biderik ez baitzegoen. Bidaia horietan gauza asko gertatu zitzaizkion Valentinari. Bere seme Migelek kontatua da hurrengo pasartea: "Behin baserri batera zioala,



1. Valentina Agirre (goian eskubikoa) bere Azpeitiko lagunekin. 2. Valentinak bete zuen bere bizitzako ametsa zena ere: Ameriketako Estatu Batuetara bidaiatzea. Antonio anaia han bizi da eta hilabete hartan bizi eta ikusi zituen gauzeekin harrituta geratu zen Valentina.

gaez, galdu egin zen. Baserri atari batera iritsitakoan nagusia leihotik eskopetarekin tiroak airera botatzen hasi zela entzun zuen. Antza denez, aurreko egunetan ijitoak ibili zitzaizkion baserri inguruan baserriar honi eta haiek uxatzeko hasi zen tiroka. Baina, halako batean konturatu zen atarian zegoena ez zela ijitoa. Linterna batekin atera zen nagusia eta hantxe ikusi zuen ama, erdi-izuturik, eta harrituta gelditu zen. Amak esplikatu zion nor zen eta nora joan beharra zeukan. Azkenean baserriarrek lagundu egin zion berez joan behar zuen baserri hartaraino. Baina, iritsi zenerako jaioa zen haurra".

Inguruko askok gogoratzen dute nola, egun batean karro batean Azpeitira iritsi ziren ijitoekin izan zuen bizipena. Haietako neskatila bat erditzen ari zen eta Valentinak, besterik ezean, erruki etxera, Miserikordira jo zuen ohe eske. Baina, ezetz esan zioten mojek, ijitorik ez zela etxe hartan sartuko. Inongo zalantzarik eta beldurrik gabe aurre egin zien Valentinak mojei eta, azkenean, etxeko sarre-rako lur hotzaren gainean bada ere, onik etorri zen mundura haur txikia.

1960 urte inguruan baserri batera zioala astotik erori zen eta bizkarrezurrean min hartu zuen. Nola-hala pasatu zuen bolada bat eta, azkenean, 1962an operatu egin zuten. Igeltsatuta izan zuen gorputza bularretik gerriraino hilabete askoan zehar. Klinika pribatu batean operatu zuten eta diru asko behar izan zuen familiak ebakuntza hori ordaintzeko. Behar zuten dirua biltzeko, itsasoan, Gran Sol-en ibili zen senarra bi urtez. Opera-

tu aurretik makurtu ere ezin zuenez egin, sukaldeko mahaietan ekartzen zituen haurrak mundura.

Bizitza maite zuen

Valentinari lanak kentzen zizkion eguneko ordurik gehienak, beti egon behar zuen edozein lekutara joateko prest, haurrek erabakitzen baitzuten noiz munduratu. Baina, hartzen zituen bere tartetxoak ere. Enparan kalean farmazia izan zuen Gabi Garcia Miguel zuen lagun mina eta harekin ibiltzen zen batera eta bestera. Azkoitiko Zeler baserria ere sarri joaten zen, ahaideak bisitatzea eta kontu kontari arratsaldeak pasatzera. Herriko festetan ere, saninazioetan batez ere, ederki pasatzen zuen Valentinak gaztetan, senarraren senideak herrira etorrita, zezenetara. Kasinon afaltzera edo pilota partidetara joaten baitzen.

Valentinak bete zuen bere bizitzako ametsa zena ere: Ameriketako Estatu Batuetara bidaiatzea. Antonio anaia New Yorken bizi da eta Valentinak hilabete pasa zuen harekin jubitatu osteko urtean. Antoniok kontatu duenez, "izugarria izan zen bidaia hura Valentinarantz, harrituta geratu zen" ikusi zuenarekin, hain desberdina zen dena!

69 urterekin hil zen, 1987ko Gabon gauean. Valentinarekin oihartzunak airean diraude, ordea, familia eta lagunentzat, haren eskuetan jarri ziren emakumeentzat, jaiotzen lagundu zituen haurrentzat eta baita liburu honen bitartez ezagutu dutenentzat ere. ✱

LIBURUXKA

DATUAK.

Orrialdeak. 50.
Neurriak. 10 x 8 zentimetro.
Tirada. 1.200 ale.
Prezioa. 5 euro (Uztarriaren bazkideek doan jasoko dute).

16. PRODUKTUA.

Aurreko 14 liburuak. *Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarazko prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendi gida, Loiolarik ez balitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua, Leo Etxeberria.*

CDa. *Urolaldeko bertso zaharrak.*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Azaroaren 25ean izango dute hitzordua, 18:00tik 21:00era, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70	943 08 06 88
-----	----------	--------------

FARMAZIAK (AZAROA)

EGUNEZ

1-6-12-14-15-18-24-30	2-13-16-21-22-25	3-7-8-9-20-26	4-10-19-27	5-11-17-23-28-29
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811949	943 815974	943 811274	943 080258	943 811350

GAUEZ

1-4-19	2-16-21-22	3-7-8-20	5-17	6-18-30	9-14-15-27	10-11-23-28-29
Jacome (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 080258	943 815974	943 811274	943 811350	943 811949	943 852989	943 851235

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ARROPA BILKETA.

Sasoi berrikoak atera eta aurrekoak gordetzen diren aldi honetan, behar ez ditugun arropen irtenbide egokia emateko aukera eskaintzen dute herrian Oldberri-ren edukiontzien.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07


||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

MAIALEN GALARRAGA

Australia

“Lekua epela da eta antzematen da beraien izakeran”

Ingeles maila ona lortu asmoz mutil-laguna eta biak Australiara joan ziren, duela bi hilabete.  **Ainitze Agirrezabala**

Nolatan zaude Australian?

Heziketa Fisikoko Magisteritza amaitu eta ingeleseko irakasle izateko unibertsitate ikasketak hasiak nituen. Egia esan, ingeles maila ona nahi nuen lortu. Ahalik eta urrutien joan nahi nuen, etxera maiz itzultzea ekiditeko; eta, bestalde, leku atsegin bat nahi nuen, niretzat ezezaguna zena. Horregatik Australia. **Zer da Australiatik gehien gustatu zaizuna?**

Naturak basatia dirudi, ederra. Kostaldean ukitu gabe dauden eremuak, han oso ohikoak ez diren hegazti eta animaliak, kosmopolitismoa, gastronomia eta kulturari dagozkien aukerak, ezusteko esperientziak izateko aukerak... Eta oraindik ezagutzeke duguna! Ikusgarriak izango dira basamortua, arrezifoen ingurua... Oraingoz Sidney ezagutu dugu. **Eta gutxien gustatu zaizuna?**

Legeak gauza guztiak mugatzeko. Batzuk onerako izan daitezke, edo ez. Baina, ez zait gustatzen dena hain mugatua egotea. **Konpainian joan zara, ezta?**

Bai. Hasieran bakarrik etortzeko prestatzen ari nintzen, baina unibertsitate ikasketak

amaitu zituen Imanol Sesmak, eta azkenean bidaiari biok batera eman genion forma. Hemengo berri ematen duen <http://australiadak.blogspot.com> bloga du, adibidez.

Nolakoak dira australiarrak azpeitiar baten ikuspegitik?

Jendea ez da Britania Handia inguruan bezain itxia. Garai batean kolonia izan zen arren —eta gaur egun Elizabeth hemengo erregina da oraindik—, ez zaie bertako izakera itsatsi, eta eskerrak! Irekiagoak dira, laguntzeko prest daude, gauza asko eskaintzen dute musutruk... Egia esan, langabezia serioik ez dute ezagutu, ez dute gerra zibil edo antzeko gatazkarik jasan... Gainera, lekua epela da, eta beraien izakeran antzeman egiten da.

Euskal Herriaz ezer ba al dakite?

Oso gutxi. Batzuk Bilbo, Donostia, Iruñeako ‘bullrun’ famatua... ezagutzen dituzte. Baina, hango gatazkaren inguruan ia ezer ez. Ugariak dira horren inguruan izaten ditugun solasaldiak... Hala ere, noizean behin norbaitek besterik gabe ‘kaixo!’ erantzutea edo gatazka azaletik ezagutu arren babesa ematea ere tokatu zaigu, eta poza ematen du.*




1


1-3. Maialen Galarraga Sidneyn.
2. Maialen bere mutil-lagunarekin, Imanol Sesmarekin, Sidneynko opera atzean dutela.



3



3



Gaudenzio Arregi Ventura (II)

I 936ko abuztuan, matxinatuak Azpeitira zetozelako hotsak zabaldu ziren. Gaudenzioren emaztea, Kontsuelo, gaixo antzean, eta ama-alabak Donibane-Lohizunera joan ziren, andreaken anaiarenera. Han zen Gaudenzio bera ere irailean, erreketek herrira sartu baino ordu batzuk lehenago alde eginda. Egun batzuk igaro eta Agirre lehendakariaren agindua, beste zenbait errefuxiaturekin batera Bilbora joan eta Eusko Jaur-laritzaren esanetara lan egiteko. Geroago, Kantabria aldera erretiratu behar izango zuten...

1937ko uztailaren hasieran Azpeitian da berriz, Santanderretik bueltan... Ez alferrik: komandantzia militarra egina dute Villa Consuelito etxea. Hartaz jabetua ziren matxinatuak. Gaudenzio atxilotu eta kartzelara sartu zuten, herrian bertan, "iraultza garaian nola jokatu zuen informazioa jaso arte". Libre irten-go zela ematen zuen... Hala ere, kartzelan zegoela bere egoeraren berri eman zion, non-bait, ziegako zaindari eta gauzainaren alaba zenari, hau janari eta arropa eramatera joan zitzaionean, eta neska gazteari esan zizki-onak jakin egin ziren: herriaren kontrako mehatxuak egin zituela, gorrien aldera pasatuko zela ahal zuen bezain azkar... Libre irten beharrean, Gasteizko kartzelara eraman zuten, eta handik, Ondarretara.

Urte eta sei hilabete zuloan

Gerra kontseilua egin zioten 1938ko azaroaren 28an, eta bi urteko kartzela zigorra ezarri "matxinada militarren aldeko aldarria" egiteagatik. Matxinatuek matxinatzeko akusazioa Gaudenzio albaitari zibilari! Urte eta sei hilabete zuloan egin eta 1940ko urtarrilaren 4an irten zen kartzelatik.

Familia Azpeitian bildu zen berriz. Villa Consuelito, beraien etxea, militarren esku. Etxe barrua, zeharo arpilatua...Gerra aurreko urteetan Gaudenzioaren bulegoan egon izan zen burzikari eta hari erasotzen zion zezen



■■■■■■■■■■ **miel a. elustondo** ■■■■■■■■■■

■■■ **Albaitari-ikuskatzaile kargutik kendu zuten, matxinatuen gobernuaren dekretu bat aitzakia**

baten margolana herriko alkate Roke Astigarragaren tabernan egon zen urte askoan. Militarrek Villa Consuelotik alde egin zutenean, berriz, herriko zerga-biltzailearen alaba ezkonberriari eman zioten etxea...

Berea zuen etxebizitza bat saldu –Ignazio Egiuren dentistaren bulego izandakoa, zehatz hura Donostiara joan zenean–, eta berreskuratu zuen Villa Consuelito Gaudenzioz.

Atzera etxean ziren Gaudenzio Arregi eta familia. Etxea? Hutsik, txikituta... baina etxe, hala ere. 45 urte zituen gure albaitariak, zero-tik hasi behar izan zuen berriz. Garai bateko lagunak, falta. Preso ohia, "gorria izateagatik" gerra aurretik ezagutzen zituen askok huts egin zioten.

Azpeitiko albaitari-ikuskatzaile kargutik kendu zuten, matxinatuen gobernuaren dekretu bat aitzakia.

Gainera, bost urteko zigorra ezarri zioten, lan eta soldatarik gabe, Gipuzkoako Ganadutegi arduradunak irekitako txosten administratibo bat tarteko... (Bukatzekotan).*



bertan txartelarekin hainbat abantaila dituzu



%5eko

deskontua azaroan eta abenduan

**Puntuak diru txekeengatik
trukatzeko aukera Nafarroako
Rural Kutxa bulegoan**

**Puntu 1 = euro 1
1.000 puntu = 10 euro deskontu
bonoa elkarteko edozein dendetan
trukagarria**

**Oraindik garaiz zaude
atera ezazu
bertan txartela**



Ukabi
informatika

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 beheá
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobek
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



8 zentimo
minutua

AHOTSA eta SMS

3 zentimo
/GB

INTERNET 3,5 G

0 zentimo

Edozein Másmovil-era
deitzea lehenengo 2 min.



innovadental

jarri zure familia eskurik onenetan!

**Inplantologia eta estetika
hortz-klinika**

→ anbulatorioaren ondoan ←

José de Artetxe, 5 · Tlf: 943 02 59 55
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)